



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2020.06.29an EGINDAKO  
BILKURA BEREZIKO AKTA**

**LEHENDAKARIA**

MAITE ANTON LENO

OÑATI

**BOKALAK**

GARAZI LARREA ZUMELAGA  
UNAI ELKORO OIANGUREN  
AINHOA CABERO GARCIA  
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA  
GORKA ARTOLA ALBERDI  
AINHOA LETE ZABALETA  
CRISTINA MARQUINA IGARZA  
EUGENIO OTSOA UGALDE  
IZARO ELORZA ARREGI

ANTZUOLA  
ARETXABALETA  
ARETXABALETA  
ARRASATE  
BERGARA  
BERGARA  
BERGARA  
LEINTZ-GATZAGA  
OÑATI

**ETORRI GABEAK**

MARIA UBARRETXENA CID  
ANDER GARAY ZABALETA  
ARITZ MURUA ACHA  
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA  
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA  
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ARRASATE  
ARRASATE  
ARRASATE  
ELGETA  
ESKORIATZA  
OÑATI

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

**JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK**

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrean ezarritakoarekin bat etorriz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren bilkura berezi hau bideokonferentziaren bidez egiten da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz, 2020ko ekainaren 29an, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, eta goian aipaturikoak bertan direla.

### Eusko Jaurlaritzako 2020ko lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzen deialdiaren markoan aurkezteko proiektuak onartzea. Udalekin lankidetzaz hitzarmenak

2020ko maiatzaren 20an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2020ko apirilaren 30eko Agindua, zeinaren bidez arautzen baitira lurralde-proiektu turistikoetarako laguntzak, eta haien deialdia iragartzen, 2020ko ekitaldirako.

Diru-laguntzen deialdi honen esparruan aurkez daitezkeen proiektu mankomunitatuak eta udal-proiektuak aztertu ondoren, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Deialdi honetan aurkezteko ondorengo jarduera edo proiektuak onartzea eta finantzaketa-konpromisoa diruz lagundu ezin daitezkeen zatiarentzat:

#### **A. Mankomunitatearen proiektu edo jarduerak:**

- DEBAGOIENA NATURA..... 65.000,00 €.
- IGNAZIOTAR LURRALDEA..... 10.000,00 €
- DEBAGOIENA GASTRONOMIKA.....25.000,00 €
- BEHIN BEHINEKO TEKNIKARIAK (Debagoiena Natura eta Debagoiena Gastronomia proiektuak garatzeko).....29.614,14 €
- MENDI IBILIAK MANTENTZEKO PIOIA..... 2.832,35 €

**GUZTIRA..... 132.446,49 €**

#### **B. Udalen proiektu edo jarduerak:**

- **Oñatiko Udala**
  - ◆ FAMILIAN OÑATIN..... 5.302,00 €
  - ◆ NATURAZ GOZATU..... 600,00 €
  - ◆ TOP ESPERIENTZIA OÑATIN..... 5.302,00 €
- **Bergarako Udala**
  - ◆ UDAKO PROGRAMA..... 11.006,80 €
- **Leintz-Gatzagako Udala**
  - ◆ TURISMO INDARTZEKO LANAK..... 7.000,00 €



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2. Bergarako, Leintz-Gatzagako eta Oñatiko Udalekin lankidetzaz hitzarmenak sinatzea aipatu proiektuen kudeaketa administratibo-ekonomikoa arautzeko, ondorengo klausulen arabera:

“LEHENA.- .....ko Udalak, ondorengo proiektua proposatzen du Mankomunitateak aurkeztuko duen eskaeran txertatzeko:

Proiektua

Aurrekontua (BEZ barne)•

.....

.....

Proiektuaren zehaztapenak hitzarmen honen eranskinetan jasotzen dira.

BIGARRENA.- .....ko udalak proposaturiko proiektuak aginduaren 1go edo 3. eranskinean jasotako ondorengo eremuetan txertatzen dira:

HIRUGARRENA.- .....ko udalak proposaturiko proiektuen exekuzioak Mankomunitateari sortuko dizkieten kosteak ordainduko dizkio. Hitzarmena sinatzean, .....ko udalak aurreikusitako kosteen %50a transferituko dio Mankomunitateari. Proiektuak gauzatzeak sortuko dituen gainontzeko gastuak Mankomunitateak ordainduko ditu bere aurrekontutik. Horretarako, Mankomunitateak partida berri bateratuko du udalek proposatutako proiektuak gauzatzeko beharko den diru kopuruarekin.

Jaurlaritzak ebazpena ematen duenean zurituko dira egindako gainontzeko gastuak. Zuriketa horren ondoren zehazten den bezala egingo da:

Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza ebazpena jasoko da Mankomunitateak aurkeztu dituen ekintzak zenbatean laguntzen dituen adieraziz. Edonola, ondoren diru-laguntza horren zuriketa egingo da eta jaurlaritzatik kitapen bat etor liteke hainbat faktura edo gastu onartuz edota baztertuz. Jaurlaritzatik jasotako diru-laguntza kitapenean onartutako fakturen/gastuen proportzioan banatuko da proiektu ezberdinen artean jasotako diru-laguntza.

Ondoren, Mankomunitateak kitapena egingo du udalekin, kontuan hartuta udalek egin duten %50eko aurrerapena eta Jaurlaritzatik proiektuari dagokion diru-laguntza, honela, proiektu bakoitza finantzatzeko falta den kopurua udalei eskatuko zaie.

LAUGARRENA.- Udalak izango du proposatutako proiektuaren kudeaketa eta exekuziorako kudeaketaren ardura osoa. Mankomunitateak kudeaketa administratibo ekonomikoa egin ahal izateko horretarako beharko duen dokumentazio eta datuak jasoko ditu udaletik. Egin beharreko zerbitzuen kontratazioa edo horniduren erosketa ez da inoiz 15.000,-€ baino handiagoa izango, hau da, kontratu txikiak kudeatuko dira soilik. Gastu guztiak kontratu txikiak direnez, kontratu legearen 118. artikulua eta mankomunitateko aurrekontu arauak bete beharko dituzte, horretarako:

- Kontratazioa 1.000,-€ baino txikiagoa denean.  
Aurrekontua aurkeztuko da, eskaria egiteko gutxieneko hurrengo datuekin:  
\* Kontratazioaren xedea eta beharra.



## DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- \* *Kontratuaren datuak*
  - *Izen soziala*
  - *IFZ*
  - *Helbidea*
  - *Ordainketarako IBANa*

- *Kontratazioa 1.000,-€ eta 15.000,-€ artean dagoenean.*  
*Hiru aurrekontu eskatu direnaren dokumentuak bidaliko dira mankomunitatera.*  
*Hiru eskaintzen artean egindako aukeraketari buruzko txostena eta esleipen proposamena.*

*Eskaria egiteko gutxieneko hurrengo datuak ere adieraziko dira:*

- \* *Kontratazioaren xedea eta beharra.*
- \* *Kontratuaren datuak*
  - *Izen soziala*
  - *IFZ*
  - *Helbidea*
  - *Ordainketarako IBANa*

-----

Bestalde, 2020ko ekainaren 1ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 2020ko maiatzaren 19ko Agindua, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko tokian tokiko parte-hartze komunitarioko prozesuen esparruan garatzen diren osasuna sustatzeko jarduketak burutzeko 2020ko dirulaguntzak.

Deialdi honi dagokionez, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

3. Aurreko urteetako deialdietan bezala, aurten ere PUNTAIK PUNTA jaialdia finantzatzeko dirulaguntza eskaera aurkeztea, horretarako jarduera eta finantzaketa-konpromisoa diruz lagundu ezin daitekeen zatiarentzat onartuz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:00etan, bukatutzat eman da bilkura.

**LEHENDAKARIA**

**BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA**